MARGOLARI GAZTEAK LEIOA

XXIII. SARIA
XXIII CONCURSO

JÓVENES PINTORES/AS

MAIATZAK 9
MAYO **2021**

INFORMAZIO GEHIAGO
MÁS INFORMACIÓN

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

OINARRIAK

Lehiaketa 2021eko maiatzaren 9an (igandea) izango da, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte.

08:00etatik 10:00ak arte Artatza Jauregian oihalei zigilua jarriko zaie. Lanak 13:00etatik 15:00etara bitartean entregatu ahal izango dira leku berean. Oihalek zuriak edo prestatuak izan behar dute.

PARTE HARTZAILEAK

12-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute.

IZEN EMATEAK

Izen emateak apirilaren 23a eta maiatzaren 5a (biak barne) bitartean bideratu behar izango dira gaztegunedigitala.blogspot.com helbidean.

TEKNIKA ETA GAIA

Teknika (akuarela, Txinako tinta, collage, akrilikoa, olio-pintura, grafitoa, teknika mistoa...) eta neurria libreak izango dira, Artatza Jauregia (kanpoaldea) eta inguruko lorategiak izango da landu beharreko gaia. Bakoitzak lan bat baino gehiago ezin izango du aurkeztu (ez da kolaboraziorik edo talde lanik onartuko) eta bastidorean edo euskarri zurrunean jarri behar dira derrigorrez. Partaideak, aipatutako zonaldean kokatu ahal izango dira.

EPAIMAHAIA

Lanik onenak aukeratuko ditu Arte Ederrekin zerikusia daukaten pertsonek osatutako epaimahaiak. Epaitza apelaezina izango da, eta sariren bat hutsik deklara daiteke.

BASES

El certamen se celebrará el 9 de mayo de 2021, domingo, dando comienzo a las 8:00 horas y finalizando a las 15:00 horas.

El sellado de los lienzos, en blanco o con bases preparadas, se realizará en el Palacio Artaza, desde las 08:00 h. hasta las 10:00 h. La entrega de las obras se realizará en el mismo de 13:00 a 15:00 h.

PARTICIPANTES

Podrán participar aquellos/as jóvenes cuyas edades estén comprendidas entre 12-30 años.

INSCRIPCIONES

Las inscripciones se realizarán entre el 23 de abril y el 5 de mayo (ambas incluidas) a través del blog gaztegunedigitala.blogspot.com

TÉCNICA Y TEMA

La técnica (acuarela, tinta china, collage, acrílico, óleo, técnicas mixtas, grafito...) y el tamaño serán libres y el tema ha de ser el Palacio Artaza (parte exterior) y los jardines circundantes. Sólo se admitirá una obra por concursante (no se admitirán colaboraciones o trabajos en grupo) y se presentará sobre bastidor o soporte rígido. Los/as participantes podrán situarse en cualquier punto de la zona indicada.

JURADO

Un jurado compuesto por personas relacionadas con las Bellas Artes determinará cuáles son las mejores obras. El fallo será inapelable, pudiendo declararse alguno de los premios desierto.

EPAITZA–ON LINE

Epaitza arratsaldeko 19:00etan jakinaraziko da. On Line.

SARIAK

Sariak bakarrak eta banaezinak izango dira.
1. saria: 800 euro + oroigarria.
2. saria: 500 euro + oroigarria.
3. saria: 360 euro + oroigarria.

Sari bereziak:
Herriko margolanik onena: 360 € + oroigarria (saririk jaso ez duen leioaztar baten margolanik onenari)
Gazte saria: 120 euroko bonoa + oroigarria (saririk jaso ez duen 18 urtetik beherako margolanik onenari).

Sari guztiak PFEZaren atxikipenari lotuta daude.

Epaimahaiak hala iritziz gero, nahi adina accesit eman ahal izango ditu baina horiek ez dute ordain saririk izango.

Halaber, lehiaketan parte hartzen dutenen artean, kategoriaren baten ezaugarriak betetzen dituen inor ez baldin badago, edo/eta epai mahaiak sariren bat eman gabe utzi baldin badu, sari hori beste sari bat emateko egokitu daiteke, betiere, sariaren zenbatekoa mantenduz.

ERAKUSKETA

Aurkeztutako lanak maiatzaren 14tik maiatzaren 30a bitartean, Kultur Leioako erakusketa aretoan ikusgai egongo dira. Halaber, ekainaren 4tik 22ra arte, saririk jaso ez duten obren jabeek euren lanak berreskuratu ahal izango dituzte, aldez aurretik jasotako gordekinaren truke Aterpe Leioa Gaztegunean. Behin epe hau bukatuta, jabea obraren bila azaltzen ez bada, obra hori Leioako Udalaren esku geratuko da.

FALLO-ON LINE

El fallo se hará público a las 19:00 horas vía telemática.

PREMIOS

Los premios serán únicos e indivisibles.
1er premio: 800 euros + detalle.
2º premio: 500 euros + detalle.
3er premio: 360 euros + detalle.

Premios especiales:
Mejor obra local: 360 euros + detalle (la mejor obra de un/a artista local no premiada en las otras categorías).
Premio Joven: Bono de 120 euros + detalle (para la mejor obra de autor/a menor de 18 años y no premiada en las otras categorías).

Todos los premios están sujetos a la retención del IRPF correspondiente.

El Jurado podrá otorgar cuantos accésit considere, si bien éstos no estarán dotados económicamente.

Asimismo, si entre los/as participantes no hubiera nadie que cumpliera con los requisitos de alguna de las categorías y/o el jurado considerará dejar desierto alguno de los premios, el importe de dicho premio podrá ser destinado para otorgar otro premio.

EXPOSICIÓN

Los trabajos presentados se expondrán en la Sala de exposiciones de Kultur Leioa entre el 14 y el 30 de mayo (ambos incluidos). Asimismo del 4 al 22 de junio, previa entrega del resguardo, las obras no premiadas podrán ser recogidas, en Aterpe Leioa Gaztegunea. Transcurrido este plazo, el Ayuntamiento de Leioa podrá disponer libremente de todas aquellas obras no retiradas.

JABETZA

Lan sarituak aurrerantzean Leioako Udalarenak izango dira. Udalak lan horiek erakutsi, kopiatu eta argitaratu ahal izango ditu eta egileek ez dute autore-eskubiderik izango. Lan sarituak Udalaren kultur ondarera bilduko dira eta ezin izango da salerosketarik egin.

PROPIEDAD

Las obras premiadas pasarán a ser propiedad del Ayuntamiento de Leioa, quien se reserva el derecho de su exposición, reproducción o publicación sin que ello suponga ni sean exigibles derechos de autor/a. Las obras premiadas pasarán a incrementar el patrimonio cultural municipal sin que éstas puedan ser objeto de compraventa.

OHARRAK

Antolatzaileek oinarri hauetan zehazten ez diren ekimenak burutzeko eskubidea gordetzen dute, oinarrien funtsezko edukia aldatu gabe. Halaber, lanak arreta handiz zaindu egingo dituzte, baina ez dute haien ardura hartuko.

Lanak lehiaketara aurkezteak oinarri hauek erabat onartzen direla esan nahi du.

***COVID 19aren gaineko osasun eta prebentzio neurriak bermatuko dira.**
Indarrean dauden neurriek hala agintzen badute, lehiaketa bertan behera gera daiteke egoera horrek dirauen bitartean. Egoerak baimentzen badu, lehiaketa beste data batetan ospatzeko aukera aztertuko litzateke.

OBSERVACIONES

La organización se reserva el derecho de tomar iniciativas no reguladas en las presentes bases no alterando el contenido esencial de las mismas. Asimismo, cuidará de las obras entregadas, pero no se responsabilizará de las mismas.

La presentación de la obra a concurso implica la total aceptación de estas bases.

**** Se garantizarán todas las medidas sanitarias vigentes respecto a la COVID 19. Si las medidas en vigor así lo exigiesen, el concurso podrá ser suspendido mientras la situación así lo exigiera. Toda vez que la situación lo permita, se analizará la posibilidad de retomar la celebración del concurso en otras fechas.***

INFO:

ATERPE LEIOA GAZTEGUNEA
Aldapabarrena2
48940 Leioa (Bizkaia)
94 405 58 50

gazte@leioa.net
gaztegunedigitala.blogspot.com

MARGOLARI GAZTEAK LEIOA
XXIII. SARIA
XXIII CONCURSO
JÓVENES PINTORES/AS
MAIATZAK 9
MAYO 2021